



(2014ko martxoa)

ZE POLITIKA?

Aginte oro betebeharra da (Victor Hugo)

“Politika, politikoentzat”, “ni ez naz politikan sartzen”, “niri bost axola politika”, “politikoek eurenari bakarrik begiratzen deute”... eta antzerako esaldiak entzuten doguz han eta hemen. Benetan, politika txarto ikusita dago eta, are eta ospe txarragoa daukie politikoek. Politikaren inguruko eretxi eskas hau argi eta garbi ikusten da hauteskundeetako partaidetzan eta alderdi eta gainerako alkarteetako afiliazioan.

EDSak, alkarte politikoaz ari danean, ez dihardu politikoez eta alderdiez bakarrik eta batez be. Gizakiaz dihardu, bizitza politikoaren helburu eta ardatza dan subjektuaz, gizarte zibilaz eta gizarte hartu-emonak suspertzeko sortzen diran erakunde guztiez, eta gizarte bizitza zuzentzeko ezinbestekoa dan erakundea eta gizarteak behar dituan erakundeen –legegileak, exekutiboak edo gobernukoak- multzoa dan Estaduaz.

Alkarte politikoa ezinbestekoa da gizakiarentzat. Ez gara gizabanako isolatuak, besteakazko batasunean osatzen garan personak baino. Gizarte bizitza antolatzeko moduak eragin handia dauka gure garapen pertsonalean, gure zorionean. Alkarte politikoak eta bere inguruan sortzen diran erakunde sozial guztiek guztion ongizateari begira egon behar dabe, horixe dalako guztien arrazoia eta horrexek beteten ditualako zentzunez. Horretarako, alkartasunaren, subsidiarotasunaren eta partaidetzaren printzipioen gidaritza izan behar dau, alkarren arduradun garala autortuz, gizabanakoen eta gizataldeen askatasuna eta ekimena errespetatuz.

Politika, gizakiok gizarte bizitzako beharrianei erantzuteko garatzen dogun jarduerea da. Politikaren menpe dago benetako bizitza gizatiarra, hau da, bizitza on eta zuzena gizartean eta gizakiak osotasuna jadestea ala ez jadestea. H. Arendtek dinoenez, politika “bizitzaren zainketa da”.

Irakurketa eta alkarrizketarako gida

1. Aukeratutako testuetan jasoten diran ideietatik, alkarte politikoaren gaurko egoerarako esanguratsuenak diranak aitatuko doguz.

2. Galdeketa soziologiko desbardinetan jasotako datuen arabera, hirugarren arazorik garrantzitsuena, herritar gehienentzat, politikoak dira, kontu politikoak, langabeziari eta ekonomiari lotutakoaren atzetik. Zer dinotsu datu honek? Zure inguruan antzematen dozu eretxi hori? Ze arrazoi ete dago kontu politikoei hainbesteko garrantzia emoteko?

3. Gure gizarteak gaur egun bizi dauan egoeran, ze eginkizun izan behar dau politikak? Zelako partaidetza izan behar dabe herritarrek jarduera politikoan? Ze bide eta bitarteko dago gaur herritarren partaidetza politikoa eraginkorra izan daiten?





ELEIZAREN DOKTRINA SOZIALAREN IDAZKIAK

Gaudium et Spes (GS)

Eleiza gaurko munduan konstituzino pastoral.
Vatikanoko II. Kontzilioa

1965

74. Gizakiak, familiak eta elkarte zibila osatzen duten talde ezberdinak jakitun dira, beraiek ez direla aski benetan gizatiarra izango den bizitza ezarri ahal izateko eta komunitate zabalago baten beharra sumatzen dute, guztien ona hobeki lortzeko, guztiek egunero beren indarrak bilduko dituzten komunitatearen beharra. Horregatik, askotariko formak dituen komunitate politikoa egin dute. **Beraz, komunitate politikoa guztien onerako dago, hortxe du bere justifikazio eta zentzu osoa eta hortik sortzen da hark jatorrizkoa eta bere-berea duen eskubidea.** Gizakiek, familiek eta elkarteek beren perfekzioa hobeki eta errazago lortzeko bide izan daitezkeen gizarte-bizitzako baldintza multzo osoa hartzen du guztien onak.

75. Arreta handia jarri behar da heziera zibil eta politikoan, herriarentzat gaur egun oso garrantzitsua baita, eta batez ere gazteentzat, herritar guztiek komunitate politikoaren bizitzan biziki esku har dezaten. **Politikako arte zail eta era berean guztiz jatorrerako egokiak izan daitezkeenak, presta bitez hartarako eta saia bitez hartan beren interesez eta irabazi galkorrez gogoratu gabe.** Joka bezate ohitura jatorrez eta zuhurtasunez bidegabekeriaren eta zapalkuntzaren aurka, gizaki bakar nahiz alderdi politiko bakar baten eskumen arbitrarioaren eta intolerantziaren aurka; guztien onari eskaini biezazkiote beren buruak egiaz eta egokitasunez, are gehiago, maitasunez eta sendotasun politiko.

SI BUSCAS RESULTADOS
DISTINTOS, NO HAGAS SIEMPRE
LO MISMO.
(ALBERT EINSTEIN)

Katolikuak Bizitza Publikoan (KBP)

Espainiako Gotzainen Batzarreko Batzorde Iraunkorra
Maitasuna eta zuzentasuna politika bizitzeko giza molde lez. Karidade politikoa.

1986

60. Kristinauaren bizitza teologalak alderdi soziala dau, eta baita politikoa be, Jaungoiko egiazkoaganako, gizakiaren eta krezino osoaren sortzaile eta salbatzaileaganako fedetik sortzen dana. Alderdi honek kristinau doeen gauzatzean eragiten dau edo, gauza bera dana, kristinau **bizitzaren bizitasun osoan. Ikuspuntu honetatik jadesten dau karidadearen zintzotasun eta duintasun sozial eta politiko guztia. Gizarteko kide guztien onaren jarraipenean eguneratzen diran personenganako maitasun eraginkorra da.**

61. "Karidade politikoa" ez datza justiziaren hutsuneak beteteen bakarrik eta batez be, nahiz eta batzuetan beharrezkoa izan hori egitea. **Are gitxiago, ez datza menpetasun edo zapalketazko sustrai sakonetan ezarritako edo finkatutako ordena baten bidebakokeriak sasi-karidadeaz estaltzen saiatzean.** Konpromiso gogotsu eta eraginkorra da gehienbat, anai-arrebatzat jotako gainerako gizakienganako kristinau maitasunaren frutua, mundu zuzenago eta anai-korragoaren alde, behartsuenen beharrianetan aparteko arretea jarriz.



Christifideles Laici (ChL)

Laikoen bokazinoa eta misinoa Eleizan eta munduan sinodo osteko burubide apostolikoa. Joan Paulo II.a

1988

42. Mundu honetako antolakuntza kristinautasunez suspertzeko –aitatu danez, gizabanakoa eta gizartea zerbitzatzearen adieran-, fededun laikoek ezelan be ezin deutse uko egin «politikan» parte hartzeari; hau da, organikoki eta instituzionalki guztion ona suspertzera zuzendutako jarduera ekonomiko, sozial, legegile, administratibo eta kultural multiforme eta anitzari. Sinodoko Gurasoek behin eta berrero esan dabenez, herritar guztiek eta bakotzak dau politikan parte hartzeko eskubidea eta betebeharra, era, maila, egiteko eta erantzukizunei jagokenez era askotara eta alkar osatuz bada be. **Sarritan gobernuko, parlamentuko, nagusi dan klaseko, alderdi politikoko kideei aurpegiatzen jakezan goranahi, botere-idolatria, norberekeria eta ustelkeria salaketek, edo politikak nahitaez arrisku morala dakarreneko askoren usteak, ez dabe inondik inora justifikatzen kristinauen ausentzia eta eszeptizismoa auzi publikoari jagokonez.**

Bakerako botoak

Iruña eta Tuteran, Bilbao, Donostia eta Gasteizko Gotzainen Pastoral idazkia.

2001

Sarrera. Horregatik, hauteskundeon ondorioz eratuko den gobernuak era askotako ondasunak lortzen saiatu beharko du, aldi berean; eta, besteak beste, Ekonomi oparotasuna, lan zuzentasuna, pentsio duin eta egokiak, trebetasunezko osasun-arreta, balioei buruzko heziera belaunaldi gazteentzat, emakumearen egoeraren hobekuntza, familiaren babesa, kultur eta hizkuntza politika irekia, herri pobreekiko solidaritatea eta herri horietako etorkinei harrera ona egitea, eta, guztien gaintik, pertsonaren bizitzaren egiazko defentsa bere ibilbide osoan, lehenengo unetik hasi eta bizitzako azken arnasaraino.

Evangelii Gaudium (EG)

Barri Onaren iragarpena gaurko munduan burubide apostolikoa. Frantzisko.

2013

205. Gure munduaren gatzen azala ez ezik sustraik sakonak sendatzera eraginkortasunez zuzenduko dan benetako alkarrizketan sartzeko gauza diran politikoen kopuruak gora egin daiala eskatzen deutsat Jaungoikoari! **Hain zikinduta dagoan politika, bokazino gorena da, karidadea gauzatzeko biderik ederrenetakoa, guztion ona daualako helburutzat.** Buruan sartu behar jaku karidadea «ez dala adiskidetasunak, familia, taide txikia lako mikro-harremanen hasiera bakarrik, makro-harremanena be badala, esate baterako gizarte, ekonomia eta politika hartu-emonena». Arren eskatzen deutsat Jaunari emon deiguzala gizartearen, herriaren, behartsuen bizitzak benetan min emoten deuten politikoak! Preminazkoa da gobernatzaileek eta aginte finantzarioek begirada altxatu eta ikuspuntuak zabaltzea, gizalegezko lana, hezkuntza eta osasunaren zainketa herritar guztientzat ahalbideratzea. **Eta zergaitik ez jo Jaungoikoagana euren egitasmoetara argi egin daian?** Seguru nago, transzendentziara zabaldu ezker, ekonomiaren eta guztion on sozialaren arteko dikotomia absolutua gainditzen lagunduko leuken pentsamolde politiko eta ekonomiko barria eratuko litzatekeana.

240. **Estaduari jagoko gizartean guztion ona jagotea eta suspertzea. Subsidiaritasun eta alkartasun printzipioetan oinarrituta, eta alkarrizketa politikoan jarduteko eta adostasunak lortzeko ahalegin handiz, funtsezko egitekoa dau, beste inoren esku itzi ezin daitekena, guztion osoko garapenaren bilaketan. Egiteko honek, gaur egungo inguruabarretan, apaltasun sozial sakona eskatzen dau.**



OTOITZ EGITEKO

(Lukas 22, 24-27)

Ikasleak eztabaidan hasi ziran euren artean, eurretan zein ete zan handiena. Jesusek esan eutsen: «Herrietako erregeek menpean hartzen dabez herriak, eta agintedunek "Ongile" izena gura izaten dabe eurentzat. Zuek ez jokatu holan. Zuen artean nagusiena izan beti gazteenaren pareko, eta agintaria zerbitzariaren pareko. Zein ete da handiago, mahaian dagoana ala zerbitzatzan ari dana? Ez ete mahaian dagoana? Ba, ni zerbitzari lez nago zuen artean».



JAUNGOIKOREN TENPLUA ERAIKI

→ Gizon eta emakume guztiak bizitzeko egokia dan mundua egitea da Jaungoikoaren tenplua eraikitzea. Izan be, Jaungoikoak ez dau gu barik egon gura.

→ Jaube lez ez ezik, administratzaile lez jokatzea da Jaungoikoaren etxea eraikitzea. Jaungoikoak bere kreazinoa eta bere ohorea geure eskuetan jarri ditualako.

→ Indarkeriaren eta bidebakokeriaren aurrean begiak zabaltzea eta erosotasunean ez ixtea da Jaungoikoaren etxea eraikitzea. Guztiontzako bake eta zuzentasunaren aldeko burrukan konprometitzea da.

→ Txarkeria salatzea da, baina Jesus gaizkile eta bidebako horren alde be hil eta biztu dala, hori be bizi barrira deitua izan dala ikusteari uko egin barik.

→ Bizitza otoitzerako leku egitea be bada Jaungoikoaren etxea eraikitzea: gure bizitzaren egia adierazoten dauan otoitza eta gure otoitzaren itxaropena adierazoten dauan bizitza.

BIALDU, JAUNA, ZURE ESPIRITUA ETA BARRITU DAIZALA GURE BIHOTZAK

- Bialdu, Jauna, zure Espiritua, zure bizitzaren arnasa, gure bizitzaren arnasa. Putz egin mundura, mugak suntsitu daitezcan eta arrazazko bazterketa barik danak hartuko dituan etxea izan daiten. Arnasa egin herrien gainera indarkeria eten daiten.

- Birsortu gaizuz zure biziaren Espirituaz gure fedea ausardiaz bizi daigun eta legamia izan gaitezcan orean, munduaren argi eta gatza. Emoiguzu bihotz barria, anai-arreba guztientzako lekua dauana, lur osoa maitasunez, zuzentasunez, alkartasunez eta guztiontzako onez erein daigun.

- Bizkaiko Eleiza kristinau sendoen, zure maitasunaren lekukoan, zure erreinuaren bilatzaileen, gizarte zuzen eta anaikorragoaren eraikitzaileen alkarte izan daitela. Zatoz, Espiritu Santua. sartu gure bizitzetan. bete Eleiza hau zure indarrez eta argiz. Hona eta orain, zatoz Espiritu Santua, gure gainera.

